

## ENPLEGUA ETA FORMAZIOA

Jarduera hauen helburua enplegua sortzea da, lanpostua ez daukaten pertsonen kopurua jaisteko. Aurreikusitako jarduera guztiak oinarritzen dira pertsona guztiok ahalegin berezia egin behar dugula Euskadin krisialditik irteteko. Horregatik, oinarrizko errenta jasotzen duten pertsonentzako edo prestaziorik gabeko langabetuentzako lan kontratuak aurreikusten dira, eta ez laguntza pasiboak, administrazio publikoak antolatutako planetan ahalegin ekarpena egin dezaten. Kontratazio eskaintza hauei uko egiteak beste laguntza publiko batzuei uko egitea ere ekarriko du berekin.

Talka plana da. Egoera bati aurre egiteko plana da, ondoko epe labur baten kontratazioa “mugitzeko”, krisiari aurre egiteko ezin bestekoa.

Prestaziorik gabeko langabetuei zuzendutako plana da, eta kontratazioa zuzenean lagunduz. 7000 pertsonen kontratazioa bultzatu nahi da.

Jarduera berriak egiteko izango da. Ez da beste kontratazio baten ordezkoa, eta ez dira diruz lagunduko beste kontratu batzuen bitartez lagundutako jarduerak ere.

Programa honetako jarduera guztiak Elkarriketa Sozialerako Mahaiak hartutako erabakien emaitzak dira. Irailean izandako bileran adostutako proposamenaren emaitzak dira, nahiz eta horiek guztiak hurrengo bileran zehaztuko diren. Datorren asterako aurreikusita dago bilera hori.

Autonomoentzat ere laguntza bereziak izango dira.

Horien guztien oinarrizko irizpidea enpleguan eragitea da, ez prestazioetan, eta, batez ere, jasotzaile pasiboak enplegu zirkuitura eramaten ahalegintzea. Horrela, lan merkaturako berreskuratu nahi dira merkatu horretatik kanpo daudenak eta plan horietan parte hartzen duten pertsonak ere bere ahalegina egingo dute laguntzak finantzen duten komunitateari laguntzen.

| NEURRIA  | HELBURUA  | MILIOI | SAILA                     |
|--|---|--------|---------------------------|
| Enplegurik izan ez eta Oinarrizko Errenta jasotzen duten pertsonen kontratazio-plana | 7.000 pertsona kontratatzea proposatzen da, Euskadiko udalekin batera egindako planen bidez. Kontratatuena %30, gutxienez, Oinarrizko Errentaren hartzaileak izan behar dute eta gainerakoak ez enplegurik ez prestaziorik ez duten pertsonak. Kontratuek 6 hilabeteko iraupena izango dute. Eusko Jaurlaritzak 1.500 euroko ekarpena egingo du kontratatutako pertsona eta hilabete bakoitzeko. Aurrekontua bi ekonomia- | 63     | Enplegu eta Gizarte Gaiak |

|  |  |              |                           |
|--|--|--------------|---------------------------|
|  | ekitalditan zatituko da: 21 M€2009. urtean zehar eta 42 M€2010eko lau hilabeteetan.  |              |                           |
| Autonomoei laguntzeko plana  | Laguntza zuzenak enplegatutik ez duten autonomoek gizarte segurantzaren kuota ordaintzen jarraitu ahal izan dezaten. Gauza jakina da autonomoek (krisia bereziki pairatzen ari den sektorea egunotan) kuota ordaintzeari uzten diotela egoera ekonomikoari aurre egin ahal izateko. Hori egitean, ekonomia gardenaren zirkuitua utzi eta alegaltasunean sartzen dira. Laguntza honen helburua da autonomok beren jarduera ekonomikoaren zirkuitu legalaren barruan jarraitu ahal izatea. 750 euroko laguntza eskaintzen zaio autonomo bakoitzari, sei hilabetez kuota ordaintzen laguntzeko. 4.000 autonomori laguntzeko asmoa dago. | 3            | Enplegu eta Gizarte Gaiak |
| Autonomoen kontratazioa laguntzeko plana   | Sei hilabetezko kontratuak, gutxienez. 4.000 euroko laguntzak (%20 gehiago emakumezkoak baldin badira). Enpresa txikiko autonomoen jarduera bultzatu nahi da eta merkatu aukera berriei aurre egitera animatu, langileak kontratatuz.  | 0,5          | Enplegu eta Gizarte Gaiak |
| Barrutibaso-Kortezubiko paduran istiltze-lanak egiteko pertsonen kontratazioa  | Programa honen helburua ingurumen lanekin lotutako 6 pertsonen kontratazio zuzena egitea da, Kortezubiko hezegunea berreskuratzeko, zehazki.   | 0,15         | Ingurugiroa               |
| Urdaibai Biosfera Erreserbako itsasadarraren babes bereziko ingurune batzuetan Baccharis halimifolia izeneko espezie exotikoa desagerrarazteaz arduratuko diren pertsonen kontratazioa | Kualifikatu gabeko langileak kontratu nahi dira Baccharis halimifolia espeziea eskuz desagerrarazteko. Zeregin horretan ez da gai kimikorik erabili nahi.  | 0,2          | Ingurugiroa               |
| Gazte tituludunak hobeto prestatzeko plana (Kutxekin elkarlanean)  | Programaren helburua da lan merkatutarako bidea erraztea beren prestakuntza osatzeko eta enpresen merkatu erreala ezagutzeko interesa duten gazte tituludunei. Euskal Kutxekin elkarlanean.  | 0,2          | Enplegu eta Gizarte Gaiak |
| <b>PROGRAMA GUZTIRA</b>  |  | <b>67,05</b> |                           |

## AZPIEGITURAK

Azpiegituren programarekin ahalik eta proiektu gehien aurreratu nahi dira eta proiektuak helburu bikoitza izango dute eragindako enplegua sortzea —sektore honetan handia da— eta eskaera kartera areagotzea gure enpresak krisialdiari aurre egiteko baldintzarik egokienetan.

Lanak lau taldetan banatzen dira:

-Bilboko metroa: 3. linearen lanen hasiera, proiektua esleituz, eta 4. lineari bultzada handi bat.

-Donostialdeko metroa: Donostialdeko metro sarea sortzen joateko lanak hastea.

-Gipuzkoako azpiegituren hobekuntza, trenen maiztasunean hobekuntzak lortzeko, bidaiari berrien erabilera areagotzeko. Bikoizketa txikiak eta geltokien hobekuntza lanak egingo dira.

-EHUko trenbidearen hasiera. Leioako EHUko trenbide sarearen lanak hasiko dituzte metroa eta Unibertsitate arteko zerbitzua lotzeko. Proiektu honetan, Eusko Jaurlaritzako oinarrizko inbertsio zuzenak aurreikusita badaude ere, behin betiko obra kapital publiko eta pribatuaren arteko lankidetzarekin —zerbitzuaren emakidaz— egitea nahi da, era honetan administrazio publikoaren inbertsio ahalmena areagotuz.

| NEURRIA                    | HELBURUA  | MILIOI | SAILA                   |
|----------------------------|---|--------|-------------------------|
| Bilboko metroaren 4. linea | Bilboko metroaren 4. linea lurperatutako eta inplantazio berriko zati bat da, eta metroaren egungo Moyuako geltokia eta Rekalde auzoa lotzen ditu, bidaiari geltoki intermodal berri baten bidez. Linea auzo horretan amaitzea proposatzen da.<br>Proiektuaren erredakzioaren eskaintza 2009an egitea proposatzen da.   | 0,5    | Herri Lan eta Garraioak |
| Bilboko metroaren 3. linea | 3. lineak Bilbo-Donostia trenbidea eta Euskotreneko Txorierriko linea lotzen ditu. Etxebarriko geltoki berriaren hasten da (San Antonio, lurrazalean) eta Matiko geltoki erdi lurperatuan bukatzen, eta lur azpiko hiru geltoki berrietatik igarotzen da Txurdinaga, Otxarkoaga eta Uribarrin, bai eta Alde Zaharreko egungo geltokitik ere. Azken hori birmoldatu egingo da Metroaren 2. | 7      | Herri Lan eta Garraioak |

|                                       |  |      |                         |
|---------------------------------------|--|------|-------------------------|
|                                       | linearekin intermodala osatzeko.<br>Trenbidea lurpetik doa eta behin bakarrik ateratzen da lur azalera, nazionalarekin gurutzatu ondoren, Etxebarrira iristean.  |      |                         |
| Karakateko bazterbidea                | Trenbide nagusiaren ibilbidea Azitain-Mendaro trenaren etorkizuneko bikoizketa lanekin bateragarria egin ahal izateko asmoz diseinatu da.  | 2,9  | Herri Lan eta Garraioak |
| Azitain-Electrociclos bikoizketa      | Salgai trenentzako 450 metroko bazterbide bat egitean datza. Trenbidearen ibilbidea aldatzen da, erradioak eta maldak hobetuz. Gainera, igarobide bat egiten ari dira, trenbide-pasaguneak kentzearen. Oinezkoentzako bi trenbide-pasagune kenduko dira: Eguzki Eder eta Alberdi Eder. | 3,5  | Herri Lan eta Garraioak |
| Eibarko tren geltokiaren birmoldaketa | Oinezkoentzako tren gaineko igarobide berria. Geltokiaren birmoldaketa. Igogailuak jartzea. Oinezkoentzako trenbide-pasagunea kentzea. Balidazio linearen zabaltzea. Arkitektura-oztopoak kentzea. Proiektuaren erredakzioa esleitzea proposatzen da.                                  | 0,2  | Herri Lan eta Garraioak |
| Ardantza geltokiaren estaltzea        | Ardantzako geltokia estaltzeko lanak.  | 2,1  | Herri Lan eta Garraioak |
| Oikinako bazterbidea                  | Proiektu honek honako lan hauei heldu nahi die:<br>Bazterbidea egitea Oikinako bazterbide zaharrean Bilbo-Donostia lineako 80+585 k.p.-n.<br>Trenbide bikoitza egitea jarduera-tartean, ibilbide-zatia bikoizteko planen barruan.  | 3,6  | Herri Lan eta Garraioak |
| Araso Kotxetegi eta Tailerrak         | Hauk dira egin beharreko jarduerak:<br>Tailerretako trenbideak (altxatzeko 2 trenbide, zutabetxo gaineko 4 trenbide eta trenbide lagungarri bat).<br>Kotxetegietako trenbideak (11 trenbide).<br>Mantentze lanetarako trenbideak (gelditzeko 2 trenbide, lubakiko 3 trenbide,          | 30,8 | Herri Lan eta Garraioak |

|   |   |     |                         |
|---|---|-----|-------------------------|
|   | <p>deskargatzeko 2 trenbide eta kargatzeko trenbide bat).</p> <p>Euskotren linearekiko lotura.</p> <p>Kotxetegi eta tailerretarako nabeak.</p> <p>Kotxetegietako, tailerretako eta mantentze lanetarako langileentzako eraikinak.</p> <p>Trenbideak mantentzeko eta bilketarako instalazioak.</p> <p>Sailean sartzeko bideak.</p>   |     |                         |
| Lasarte-Errekalde bikoizketa                                | <p>Proiektuak Lasarteko trenbide-zabalditik Errekaldeko geltokira arteko zatia hartzen du. Nasa berri bat egin nahi da, bidaiari eta salgaien trafikoa bereizi, eta materialak biltzeko gune bat prestatu.</p>  | 11  | Herri Lan eta Garraioak |
| Loiolako lubeta gaineko igarobideak + Anoetako birmoldaketa | <p>Egungo lur azaleko plataformaren bikoizketa.</p> <p>Urumearen gaineko zubi berri baten eraikuntza. Egungo bi zubien eraispena.</p> <p>Trenbide bikoitzeko tunel berri baten eraikuntza. Bigarren tunela trenbide bakarreko salgai-trenak bakarrik erabiltzeko egokituko da, eta Pasaiako portuarekin lotuko.</p> <p>Intxaurrendoko geltoki berria (lur azpian).</p> <p>Herrerako geltokiaren birmoldaketa osoa eta bide-korapiloaren egokitzapena biribilgune baten bidez.</p> | 3   | Herri Lan eta Garraioak |
| Leioako EHUren campusera doan anezka-trenbidea              | <p>Leioan aurreikusitako hiri-garapen berriekin bat datorren ibilbidea, bigarren fase baten aurreikuspena Sarrienan.</p> <p>Metro-Tranbia geraleku intermodala Leioan.</p> <p>Jardueraren hasieran aurreikusitako tailer eta kotxegietarako tokia. Muga egiten du Udondo ibaiarekin eta itsasadarra inguratzen duen BI-711 errepidearekin.</p>  | 5   | Herri Lan eta Garraioak |
| Gasteiz-Abetxuko tranbia                                    | <p>Lan honekin dagoenari Abetxuko auzoan luzapena egiten zaio, auzoko zerbitzua</p>   | 5,8 | Herri Lan eta Garraioak |

|  |  |             |                     |
|--|--|-------------|---------------------|
|  | hobetuz.   |             |                     |
| Vitoria-Gasteizen trenbidea lurperatzeko egitasmoa | Administrazio Zentralaren, Gasteizko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean egindako hitzarmenaren sinatzea. | 0,2         | Lanak eta Garraioak |
| <b>PROGRAMA GUZTIRA</b>                            |  | <b>75,6</b> |                     |

## HERRI LANAK

Herri-lanen programaren bidez enplegua sustatu nahi da eraikuntza enpresa txikietan, batez ere tokian tokiko eraikuntza elkarteetan, horiek baitira gehien pairatu dituztenak egungo krisiaren ondorioak. Horretaz gainera, erabat eraberritu nahi dira bai eskola-eraikinak bai osasun zerbitzuetako eraikinak eta konponketa batzuk egin kirol eraikinetan. Eskola-eraikinen kasuan, gainera, baliabideak transferitu nahi dira udaletara (10 milioi), eraberritze lanak egin ditzaten lehen mailako eskola eraikinetan.

| NEURRIA                                     | HELBURUA  | MILIOI | SAILA   |
|---|---|--------|---------|
| Eskuinaldeko Ospitalea                      | Gaixo akutuentzako eskualdeko ospitale orokorra. Uribe osasun-eskualdeko biztanleriaren arreta espezializatuan dagoen eskaera, ia dena, bere gain hartuko du, eta horren barruan une honetan Gurutzeta Ospitaleak izendatuta duen biztanleriaren zati batena.<br>Ospitale berriari izendatutako erreferentziako biztanleria 166.931 herritar dira eta Plentzia, Algorta, Sopela, Areeta eta Mungia azpieskualdetako udalerriak hartzen ditu.<br>Ospitalea Urdulizko udalerrian kokatuko da. | 20     | Osasuna |
| Gasteizko ospitale berri                    | Ospitale berriaren proiektua egingo da.   | 0,5    | Osasuna |
| Eraberritze-lanak osasun-arloko eraikinetan | Programa honetan hainbat udalerritako osasun-azpiegituretan egitekoak diren eraberritze-lan ezberdinei heltzen zaie. Helburua tokian tokiko gremioen edo eraikuntzako enpresa txikien jarduera sustatzea da, bai eta osasun-instalazioak hobetzea ere.  | 10     | Osasuna |

|  |  |     |           |
|--|--|-----|-----------|
| Lanak Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta HHEko zentroetan                               | Udalekin lankidetzan jardutea EAeko Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta HHEko ikastetxe publikoetan birgaitze-, zaharberritze- eta eraberritze-lanak eta konponketa sinpleak egiteko.<br>Lankidetzan horren bidez ikastetxe publikoetan lanak egitea sustatu nahi da, bai eraikinen egoera hobetzeko, bai eraikuntzaren sektoreko gremioen jardura sustatzeko.<br>EAeko 171 udal.<br>Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta HHEko 366 ikastetxe publiko.<br>Ekintzak udalekin lankidetzan burutuko dira, eta horretarako baliabide ekonomikoak transferituko zaizkie. | 10  | Hezkuntza |
| Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan lan txikiak egiteko programa                              | Programak eraikinak barrutik egokitzeko lan txikiak jasotzen ditu, besteak beste, honako hauek: barrualdeak margotzea, komunak eta aldagelak eraberritzea, larrialdietako linea elektrikoa, fatxadak konpontzea, eta abar, hiru probintzietako ikastetxeetan.  | 3   | Hezkuntza |
| Hobekuntza-lanak euskal unibertsitateetako eraikinetan, konponketa- eta zainketa-lan txikiak | EAeko zerbitzuen sektoreko eraikinen eraikuntza- eta mantentze-lanetan aritzen diren gremioetan lana sortzea. Goi-mailako irakaskuntzaren euskal sistemako unibertsitatei dagozkien kostuen zati bat subentzionatuko da dauden instalazioak eta eraikinak zaharberritu, zaindu, hornitu eta egokitzeko.<br>Euskal Herriko Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea.  | 3   | Hezkuntza |
| Fadurako (Getxo) Kirol Teknikazio Zentroaren estalkiak konpontzeko lanak                     | Une hauetan konponketa-lanak egiten ari dira eraikinean, eta instalazio biziak estalkia konpontzeko aukera ematen dute. Aukeraz baliatuz lan horiek egiteko  | 0,2 | Kultura   |

|   |   |     |                         |
|---|---|-----|-------------------------|
|   | <p>proposamena egin zen, baina aurrekontuan ez zegoen hartarako aurreikuspenik. Zentroari bultzada berria emateko asmoa dago, bereziki gaur egun eta aspaldiko urteetatik erabiltzen ez den kirolarientzako egoitzari. Eraikinean Teknikazio Zentroa, Kirol Eskola, goi-mailako kirola sustatzeko Basque Team fundazioa, osasun-zerbitzuak eta era guztietako kirol-instalazioak daude.</p>   |     |                         |
| Legutioko estropada-eremua (aulki mugikorra) birgaitzea | <p>2007aren hasieran utzi zion Eusko Jaurlaritzak urtegian kokatuta dagoen eremu hau erabiltzeari kirolariek eta herritarrek ez ziotelako behar adinako etekinik ateratzen. Eremua, beraz, hondatzen joan da, baina instalazioak eraberritzen badira berriz erabiltzeko moduan izango dira, eta proiektua Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzaren bidez Arraun Federazioarekin hitz eginda bideratuko da. Eremuan egin beharreko lanak honako hauek dira: buien arteko igarobidea berreskuratzea, kirol-materiala gordetzeko hangarrak birgaitzea eta ibilgailuentzako sarbideak egokitzea.</p> | 0,3 | Kultura                 |
| Alokatzeko apartamentuen proiektuak                     | <p>2010eko urtarrilean etxebizitzak eraikitzeko prozesu berritzaile bat abian jartzea ekimen pribatuaren eta publikoaren artean alokatzeko etxebizitzak eta/edo bizilekuak sustatu eta merkatuan jartzea kudeatzeko. Prozedura administrazioaren emakidaren antzekoa izango da eta 20/30 urtetan banatuko da lanak egiteko behar den inbertsioa. Hasieran ordainketa kanonen bidez edo hileko alokairuaren bidez egingo zaio sustatzaileari eraikinak amaitzen diren unetik. Prozesuari hasiera emateko eginda egon beharko dute programa honen xede diren oinarriko proiektuak.</p>              | 1,7 | Herri Lan eta Garraioak |



|                         |  |      |  |
|-------------------------|--|------|--|
|                         | Proiektuen idazketa esleitzeko asmoa dago. |      |  |
| <b>PROGRAMA GUZTIRA</b> |  | 48,7 |  |

## ENPRESENTZAKO LAGUNTZAK

Enpresen jarduerak berebiziko garrantzia du egungo egoeran. Hainbat neurri planteatu dira krisiak enpresetan duen eragina arintzeko, eta, besteak beste, eraginkorrak direla uste den lerroetako kredituak zabalduko dira, baldin eta enpresen eskaerek nabarmen gainditzen badituzte aurrekontuetan aurreikusitako baliabideak.

Industria Sailak sustatutako neurri guztiak hertsiki lotuta daude industriaren sektorean nahiz aisiarenean eta zerbitzuenean enpresak berritzeko eta lehiakortasuna hobetzeko politikarekin, eta arreta berezia eskaintzen zaie informazioaren gizartearen esparruan ekintza berritzaileak garatzeari eta teknologiak aldatzeari.

Helburu nagusia eskaera suspertzea eta enpresa-ehuna aktibo mantentzea da. Aurrez aurreko plan honek ez du baztertzen datorren ekitaldian beste neurri ekonomiko batzuk abiaraztea une bakoitzeko egoera ekonomikoaren arabera eta 2010eko Aurrekontuen esparruan.

Industria Sailaren neurriak Nekazaritza Sailaren hainbat neurriekin osatuko dira, helburutzat elikagaien industriaren arloan enpresa-sare lehiakorra sortzea hartuta. Lehen sektoreko erauzketa-sektoreek, besteak beste, arrantzaleen kofradiek, proiektu hauetan parte-hartze aktiboa izatea nahi da.

| NEURRIA  | HELBURUA   | MILIOI | SAILA     |
|----------|--|--------|-----------|
| Gauzatu  | Teknologia eta/edo Berrikuntzan oinarritutako proiektuetako aktiboetan inbertsioa sustatzea euskal enpresak lehiakorragoak izateko formula gisa. EAEn errotuta dauden ETEak. Enpresetan sartzeko aktibo finko berriak eskuratzeko laguntza. Aurrerakin itzulgarriak enpresari inolako finantza-kosturik eragin gabe. | 11,9   | Industria |
| Bideratu | Krisian dauden enpresak berregituratzeko eta berrabiarazteko laguntzak. EAEn errotuta dauden eta arazoak dituzten ETEak.   | 4,6    | Industria |

|   |  |    |           |
|---|--|----|-----------|
|   | Enpresaren eta langileen artean itundutako berregituratze-planerarako laguntzak; berregituraketaren kostuaren % 33 emango da gehienez. Enpresariak beste % 33 jarri beharko du kapital gisa, eta gainerako finantziazioa. EBk 2010-12 aldirako onetsitako programa.  |    |           |
| KOI-Eusko Jaurjaritza hitzarmena (ETEak, likidezia) | Lehendik dagoen lerroa sustatzea KOIk eskaintzen dituen berme-mailak gehituz lortzen da, eragiketa bakoitzaren % 50 eta zorroaren % 5eko mugarekin, bermeari eragiketaren % 25 erantsiz (eta bankua, beraz, % 25eko arriskuarekin geratuko da) eta zorroaren muga orokorra bikoiztuz % 10era arte.<br>Lerro honen helburua ETEei eta autonomoei maileguz bidez likidezia sartzeko da, maileguz muga bezero bakoitzeko eta urteko 1.500.000 eurokoa izango da, eta 3 urteko amortizazio-epea izango du (gabealdia sei hilabetetik urtebeterakoa). | 5  | Industria |
| Ezten (partaidetza-kreditua)                        | Ezten Arrisku Kapitalaren Funtsetik (% 82 SPRI eta % 18 Eusko Jaurjaritza) partaidetza-kredituak ematea eta/edo partaidetza minoritarioak erostea, proiektuak/inbertsioak erakartzeko eta/edo industria-proiektu sendoak dituzten enpresak ixtea edo lekuz aldatzea eragozteko.  | 10 | Industria |
| IRAUN plana   | Enpresei finantza-pasiboak berregituratzeko prozesuetan laguntzea, kontuan hartuta gaur egun enpresak desagertzearen kausa nagusietako bat dela finantza-erakundeek muga zorrotzak jarri dituztenez kredituak eman eta berritzeko.   | 3  | Industria |
| Enpresa-garapena                                    | Berrogeita hamar langiletik beherako industria-enpresen ekoizpen-ekipamenduak  | 2  | Industria |

|                         |  |     |           |
|-------------------------|--|-----|-----------|
|                         | <p>ahalik eta gehien modernizatzea lortzea, laneko osasun- eta segurtasun-arauetara egokitzea eta lehiakorragoak izaten lagunduko dien produktibitatera iristen laguntzea.</p> <p>Berrogeita hamar langiletik behera dituzten eta lantokia EAEn duten industria-enpresak.</p>  |     |           |
| LEHIATU plana           | <p>EAEn errotuta dauden enpresen lehiakortasuna hobetzea hainbat prozesuren bidez, besteak beste, gogoeta estrategikoa, dibertsifikazioa, eta abar, izena duten eta sektorearen ikuspegitik benetako adituak diren kanpoko aholkulariek lagunduta.</p>   | 3   | Industria |
| RENOVE makina-erreminta | <p>Industriaren sektoreko ETEen ekoizpen-ekipamenduak ahalik eta gehien modernizatzea lortzea eta lehiakorragoak izaten lagunduko dien produktibitatera iristen laguntzea.</p> <p>Industriaren sektoreko ETEak, lantokia EAEn dutenak.</p> <p>Asmoa enpresa onuradunak makina-erreminta berria erostea da. Oraindik aztertu egin behar da nola bideratu bertako makina-erremintak erostea.</p> | 5   | Industria |
| SIREA                   | <p>Proiektu honen bidez eduki teknologiko handiko jarduera garatu nahi da, hain zuzen ere, Euskadiko akuikultura-sektorearen garapen iraunkorra sustatzeko eta EAeko arrantza-produktuen eskaintza dibertsifikatzeko. Asmoa inbertsiogile pribatuekin batera, bakailaoa ekoizteko plantaren eraikuntzan parte hartzea da.</p>  | 1,5 | Arrantza  |
| ARBI                    | <p>Proiektu honen bidez arrantza-produktuak eraldatzeko bide berriak sortu nahi dira kontsumitzailearen egungo beharrei erantzungo dieten balio erantsiko elikagaiak lortzeko.</p> <p>Proiektuaren asmoa arrantza-ontziek</p>  | 2,4 | Arrantza  |

|  |   |      |             |
|--|---|------|-------------|
|  | <p>harrapatutako espeziak balioestea da hainbat prozeduren bidez: xerrak egin, ontziratu, arraina sexuaren arabera sailkatu eta arrautzak kendu.</p> <p>Lehenengo fase batean bertako teknologia erabiltzen duten robotizatutako lerroak instalatuko lirateke arrainak sexuaren arabera sailkatzeko. Hondarribiko eta Bermeoko kofradiek parte hartzen dute beste inbertsiogile batzuekin batera.</p> |      |             |
| NFS  | <p>Jakiak prestatzea eta merkaturatzea. Azti fundazioak Mugaritz sukaldaritzataldearekin egindako ikerketaren emaitza da, eta euskal sukaldaritza berriaren ezagutzak, elikagaien ikerketa eta bertako ekoizpena lotu dituzte. Helburua azkar prestatzeko produktu berriak eskaintzea da. AZTI fundazioarekin batera inbertsiogile pribatuek parte hartu dute.</p>                                    | 4,8  | Arrantza    |
| Araban patata erein, bildu eta biltegitratzeko proiektu pilotua. | <p>Hazitarako patata ekoizteko sistema berri bat ezartzea kontratu homologatuen bidez.</p> <p><b>HELBURUAK:</b></p> <p>Patata-ustiategiei eustea</p> <p>Arabako ustiategietan hazitarako patata berreskuratzea</p> <p>Ekoizpena bermatzea nekazariarekin ekoizpen-kontratuak izenpetuz.</p> <p>Hiru urtean patata-uztaren azalera bikoiztea Araban</p> <p>Uzta biltzeko prozesua automatizatzea.</p>  | 0,13 | Nekazaritza |
| EIBAR-TEKNIKER   | <p>Tekniker Fundazioarekin lankidetzan jardutea Eibarren Polo Teknologiko bat sortzeko egiten ari den urbanizazioan. Fundazioak beti ikusi izan du poloa bere burua finantzatzeko aukera bat dela, nahiz eta ez datorren bat Sprilurren xede publikoarekin. Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren eta Infoinvest sozietatearen</p>  | 2    | Industria   |

|                                    |   |              |           |
|------------------------------------|---|--------------|-----------|
|                                    | laguntza ekonomikoa lortzen saiatu behar da.  |              |           |
| HERNANIKO INDUSTRIALDEA            | Jarduera ekonomikoen sektorea sortzea Unión Farmaceútica enpresarekin lankidetzan publiko-pribatua ezarriz. Bi solairutako 35.000 m <sup>2</sup> pabiloi eraikiko dira. Azpiegitura batzuk Galarreta sektorearekin partekatuko dira. Lur-zati handi bat sortuko da Unión Farmaceútica Guipuzcoana enpresa, lursail gehien jabea, kokatzeko. | 3            | Industria |
| VITORIA INDUSTRIAL AIR PARK - VIAP | Foronda aireportuari erantsita dagoen eremuan industria- eta logistika-jarduerak hartuko dituen sektore bat sortzea Forondako aireportua salgaien aireportu moduan baliatuz eta garatuz. Horrez gain, industria-sektore bat sortuko da Subillabiden (Iruña Oka) sektore honek Forondari egindako lur-ekarpenak baliatuz.                    | 5            | Industria |
| Kanpezuko industrialdea            | Lan honen asmoa industria eremu honetan sustatzea da.   | 0,5          | Industria |
| <b>PROGRAMA GUZTIRA</b>            |   | <b>63,83</b> |           |

## ERAGINKORTASUN ENERGETIKOA

Programa honekin lortu nahi da batez ere eraikuntzetan energia aurrezteko jarduerak egitea, “renove” planak etxetresna elektrikoen parkea egokitu eraginkortasun energetikoa handiagoko beste batzuetara. Eskola-eraikinetan aldaketa sakonak egitea planteatzen da eraikinen eraginkortasun energetikoa hobetzeko baina, baita ere, eskola eraikinak indarrean dagoen edo berehala indarrean jarriko den araudira egokitzeko. Alor honetan aurreikusita dauden berrikuntzak CADEM zentroak eraikin horietan egindako azterketaren ondorio dira eta azterketa horietatik ondorioztatzen diren berrikuntzak egingo dira. Nekazaritzaren alorrean aintzat hartu dira bi esperientzia pilotu uraren kontsumo optimizatzeke eta nekazaritza ustiapenetan autokontsumo energetikoa sustatzeko.

| NEURRIA   | HELBURUA   | MILOI | SAILA       |
|---|--|-------|-------------|
| Ureztatze telekontrol sistema baten ezarpena                    | Ureztatze uraren kudeaketaren modernizazioa Arabako ureztatzaileen komunitateetan ureztatze telekontrol sistema bat ezarriz, sarearen automatizazioa lortzeko edozein unetan aldatu ahal izateko, zabalduz edo sute-ahoak aktibatuz edo desaktibatuz; denbora errealean lurraren behar hidrikoen informazioan sartzeko aukera bai laborantza meteorologiko parametroak erabiltzen dituzten eredu matematikoak erabilia edo lurlean bertan ezarritako sentsoeren bidez. | 0,13  | Nekazaritza |
| Nekazaritza ustiapenen autohornikuntza energetikorako proiektua | Landare oleaginosoak aprobetxatzeko sistema baten garapena bioerregaien autokontsumorako.<br>Produkzio eta autokontsumorako sistema iraunkorra ezartzea lortzea.   | 0,5   | Nekazaritza |
| Renove leihoak  | Etxebizitzen erreformak, eta bereziki, kristaldun itxituren hobekuntzak aukera ona dira neurri eraginkorrak hartzeko errendimendu energetikoa areagotzeko, eraikuntzen eraginkortasun energetikoari buruzko 2002/91/EE zuzentarauak jasotzen duen bezala.  | 6,6   | Industria   |

|                               |   |     |           |
|-------------------------------|---|-----|-----------|
|                               | EAEn dauden etxebizitzan jabeak edo gozameduan dauden pertsona fisiko edo juridikoak, edo etxeen errentariak direnak, leihoen berrikuntza egiten badute termikoki eragingarriagoak diren beste batzuen truke.   |     |           |
| Renove etxetresna elektrikoak | Energia elektrikoaren kontsumoa jaitsi etxekoa den sektorean hozkailuak, izekailuak, arropa-garbigailuak, ontzi-garbigailuak eta labeak aldatuz A motako edo hortik gorako etiketa energetikoa duten ekipoak jarrita, eta arropa eta ontzi garbigailuentzako A garbiketako eraginkortasuna dutenak jarrita.<br>EAEn bizi eta etxeko erabilerarako nahi duen edozein pertsona fisiko edo juridiko, publikoak zein pribatuak, aipatutako eredu desberdinetako etxetresna elektriko bat aldatu nahi duena A klaseko edo maila altuagoko etiketa energetikoa duen beste baten ordean. | 4   | Industria |
| Renove galdarak               | Egun jarrita dauden banakako galdarak aldatzea eta kondentsaziokoak jartzea. Galdaren berrikuntzak etxebizitza sektorearen eta hirugarren mailako txikien potentzien sorta barruan (70 Kwkoa edo txikiagoa).<br>Etxebizitzan, saltoki txikien, dirurik irabazteko asmorik gabeko erakundeen, herri erakundeen, jabeen erkidegoen edo beste zerbaiten pertsona fisiko edo juridikoak, jabeak edo gozameduak daudenak, beti ere, berrikuntza EAEn egiten bada.  | 0,5 | Industria |
| Renove herriko argiteriarena  | Kanpoan dauden argiteria publikoaren instalazioen energia kontsumoa jaitea, eraginkortasun energetikoan hobetzeko inbertsioak sustatuz.<br>Udalak, kanpoko argiteria publikoaren  | 1   | Industria |

|  |  |   |           |
|--|--|---|-----------|
|  | zerbitzuaren emakidaren erakunde publiko edo pribatuak, eta kanpoko argiteria publikoan erantzukizuna duen edozein erakunde publiko zein pribatu.  |   |           |
| Energia berriztagarriaren sustapena  | <p>Herritarrak energia aurreztu eta eraginkor erabiltzeko kontzientziatu, aurrezte eta eraginkortasun energetikoko proiektuak eta jarduerak sustatuz, ingurugiroa babesteko asmoz.</p> <p>a) Instalazio berriak, produkzio, kontsumo eta kontrolerako ekipoak, baita berrikuntza teknologikoa edo aplikazioen berrikuntza dakarten materialak ere, programaren helburuak lortzen laguntzen badute.</p> <p>b) Hondar-beroa aprobetxatzeko instalazioak, ekipo berriak eta kontrolerako sistemak eta aldagai energetikoen kudeaketarako ekipoak jarri eta aldatu, baita lehengaiak errekuperatu ere; beti ere, energia kontsumoa jaisten bada eta ingurugiroa hobetzen bada.</p> <p>c) ETEn eraginkortasun energetikoaren erabilera, kudeaketa eta hobekuntzarako azterketa lan integrala.</p> <p>d) Goi mailako errendimendudun kogenerazioa erabiltzen duten autoprodukziorako instalazio berriak, elektrizitatea eta beroa tartekatzen duten produkzio gisa, programaren hobekuntza energetikoa eta ingurunekoa lortzen lagunduz.</p> | 1 | Industria |
| Eraginkortasun energetikoan inbertsioa EAEko hezkuntza zentroetan EVE planaren arabera | <p>Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailekoak diren eraikinetan kudeaketa energetikoa, bizigarritasun baldintzak, segurtasuna eta ohiko gastuaren planaren obra inbertsioa.</p> <p>Kudeaketa energetikoaren plana hiru lan fasetan garatu da eta fase horietan hiru</p>   | 2 | Hezkuntza |



|  |  |       |           |
|--|--|-------|-----------|
|  | <p>lurraldeetan dauden udal desberdinetako ikastetxeen eraikinen azterketa energetikoa egin da.</p> <p>58 bigarren hezkuntza BHI.</p> <p>Arabako 18 ikastetxe, Bizkaiko 21 ikastetxe eta Gipuzkoako 19 ikastetxe.</p>  |       |           |
| Renove energia aurrezteko turismoentzako | <p>Eraginkortasun energetiko altua duten edo bioerregaien bidez elikatzen diren turismoak erostea sustatzeko programa, laguntza ekonomikoak emanez ohizko diseinu eta motorizazioa duten ibilgailuak turismo alternatiboekin konparatuz sortzen den gehiegizko kostua jaisteko.</p> <p>Ibilgailu berriak erosteko laguntzak emango dira, 3500 kg-tik beherako BGM duten turismoak edo merkataritzarakoak badira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- A mailakoak, IDAeko eraginkortasun energetikoaren etiketaren arabera eta CO2/km-ko 120 g-tik beherako igorpena badute.</li> <li>- Diesel propulsiokoak eta fabrikatzaileak onartzen badu erabiliko den karburanteak gutxienez %30eko biodiesela izatea.</li> <li>- Otto propulsiokoak (gasolina) eta fabrikatzaileak onartzen badu erabiliko den karburanteak gutxienez %85eko bioetanola izatea.</li> </ul> <p>Erositako ibilgailu berri bakoitzarengatik emango den dirulaguntza: 400€</p> | 0,25  | Industria |
| <b>TOTAL PROGRAMA</b>                    |  | 15,98 |           |

## BERRIKUNTZA ETA IKERKETA

Programa honetan bildutako neurrien bidez, krisiaz baliatu nahi dugu, nolabait, enpresak birkokatze, produkzioaren, teknologiaren eta merkataritzaren ikuspegitik. Hain zuzen ere, teknologiaren erabilera sustatu eta ekoizpen berbideratu nahi dira neurri horien bidez. Eta enpresen lehiakortasun-baldintzak hobetu; I+G+B esparruko proiektuak sustatu; gure enpresetan nazioartekotzea sustatu, atzerriko merkatuetan duten presentzia sendotzeko; enpresak berrikuntzari eta lehiakortasunari loturiko irizpideen bidez berrantola daitezen sustatu; Euskadiko teknologia-proiektu handiei sostengua eman. Era berean, unibertsitate-ikerkuntza sustatu eta ezagutza enpresen ekonomia errealerara eramango dugu. Horretarako, ikertzaile gazteek enpresen jardueran zuzen-zuzenean parte hartzeko ekintzak proposatzen dira, baita unibertsitatearen eta enpresen arteko lankidetzaprogramei sostengua ematekoak ere. Azkenik, dagoeneko sortuta dauden BERCetan ikertzaile seniorren jarduera sendotzeko urratsak egingo dira.

| NEURRIA    | HELBURUA   | MILIOI | SAILA     |
|------------|--|--------|-----------|
| IRTENBIDE  | EAEn kokatuta dauden enpresen lehiakortasuna hobetu, berrikusketa eta hausnarketa estrategikoak egitea eta nazio arteko planak martxan jartzea bultzatuz.<br>EAEn kokatuta dauden ETEak<br>A) Hausnarketa estrategikoa eta nazio arteko planifikazioa egin:<br>Hausnarketa eta planifikazioa egiteko behar den aholkularitza.<br>B) Nazioartera zabaltzeko plana gauzatzea:<br>Planaren barruan dauden herrialde edota merkatuetan egingo diren kanpo promoziorako ekintza eta jarduerak bultzatzea. Enpresak nazioartera zabaltzeko plana izan behar du eta planaren helburua izan behar da merkatu bat edo gehiagotan hasi, indartu edo sendotzea. | 2,25   | Industria |
| INTEKBERRI | EAEn kokatutako enpresen lehiakortasuna hobetzea, I+G+B proiektuak gauzatzeko laguntza emanez.<br>GAITEK: produktu berrien garapena<br>INNOTEK: produktuen eta prozesuen hobekuntza<br>TEBak: oinarri zientifiko eta teknologikoko enpresa berriak sortzea.  | 8      | Industria |

|   |   |     |           |
|---|---|-----|-----------|
|   | <p>Enpresa handiak eta ETEak, eta enpresa-elkarteak.</p> <p>Enpresen edo enpresa berriak sortzeko I+G+B proiektuak gauzatzeko zuzeneko laguntzak</p>  |     |           |
| PROINTER                                | <p>EAEn kokatutako enpresen lehiakortasuna hobetzea, atzerriko jarduera sendotzea eta atzerrian ezartzea.</p> <p>EAEn kokatutako ETEak eta, atzerriko ezarpen produktiboei dagokienez, EAEn kokatutako edozein enpresa.</p>   | 1,5 | Industria |
| SPRI ekimena                            | <p>Kanpo Sarearen zerbitzuak EAeko enpresei hurbiltzea.</p> <p>Indiako eta Txinako misioak (Japonia-Singapur-Indonesia-Koreakoez gainera) errentagarri bihurtzera bideratutako kanpo-jarduera sustatzea, topaketetan eta bisitetan laguntza emanez, baita logistikan, koordinazioan eta komunikazioan lagunduz ere.</p> <p>Kanpo Sarea (Intergune) Indiako eta Txinako misioekin lotzea da xedea, gure enpresek merkatu horien ezagutza hobea izan dezaten.</p> | 0,2 | Industria |
| IKERTU                                  | <p>Euskal enpresetan teknologoak txertatzea eta enpresen kualifikazioa areagotzea.</p> <p>Enpresen giza kapital zientifiko-teknologikoa gaitzeko eta espezializatzeko laguntza-neurriak.</p> <p>Enpresen I+G+B sustatzea, teknologoak eta langile ikertzaileak kontratatuz.</p>   | 1   | Industria |
| ETORGAI Industria Ikerketa Estrategikoa | <p>Industria-ikerketa estrategikoko I+G+B proiektu integratuak.</p> <p>Enpresa handiak eta ETEak, fundazioak eta enpresa-elkarteak.</p> <p>Urte anitzerako proiektuak, gehienez ere hurrenez hurreneko 3 urterako izango diren laguntza-deialdiak.</p>  | 3   | Industria |

|  |  |      |           |
|--|--|------|-----------|
| ETORTEK  | Aukerako sektoreak garatzeko estrategikoak diren arloetan gaitasun zientifiko-teknologikoa eskuratzeko I+G+B proiektuak.<br>Urte anitzerako proiektuak, gehienez ere hurrenez hurreneko 3 urterako izango diren laguntza-deialdiak.<br>Zuzeneko diru-laguntzak, IKZeik eta Innobasqueko gainerako eragileei.   | 3    | Industria |
| Krisiari aurre egiteko berrikuntza-agendak (egoerari pisu +), ETE eta mikroenpresentzat                      | Gogoeta-, inplementazio- eta ikuskaritza-prozesuak gauzatzea, antolakundeek aukera izan dezaten berrikuntzan eta lehiakortasunean oinarrituriko estrategiak garatzeko, eta krisiari aurre egiteko planak inplementatzeko, hala dagokionean.  | 1    | Industria |
| Berrikuntza-proiektuentzako laguntza (berrikuntza-agenden outputa) ALDATU                                    | Enpresaren strategiari, merkatu-berrikuspenari eta berrikuntza-gaitasuna garatzeari dagokienez antolakundeetan eraldaketa sakonak egiteko aukera emango duten proiektuak ezartzea, gogoeta-prozesuen emaitza gisa.<br>EAEn kokatutako enpresak.<br>Enpresa txiki, ertain nahi handientzat.<br>Proiektuen kostuaren %50erainoko diru-laguntzak. Barne-langileen gastuak ere hartzen dira aintzat. | 0,5  | Industria |
| Formazio-programetarako laguntza (tarteko postuak), enplegu-erregulazioko espedientepean dauden enpresentzat | Berrikuntza eta ekoizpena kudeatzeko eredu eta tresna berriak ezartzeko aukera emango duten oinarritzko gaitasunak hartzeko formazio-prozesuak.<br>Jatorrizko jardueraren osagarri, espedientepean dauden langileetara zabalduko da zerbitzua. Gaitasunak eta trebetasunak garatzea du funtsezko helburua.   | 0,25 | Industria |
| HOBEGI DIGITALA 2009 zabaltzea: ETEetan IKTak txertatzea   | ETEetan IKTen ezarpena eta erabilera hobetzea.<br>ETEek aholkularitza informatiko  | 0,3  | Industria |

|  |  |            |                  |
|--|--|------------|------------------|
|  | <p>espezializatuko bulegoekin lankidetzan IKTak ezartzeko gauzatutako proiektuetarako laguntza.</p> <p>Proiektu motak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Kudeaketarako sistema integratuak ezartzea</li> <li>• Bezeroen kudeaketarako sistemak ezartzea</li> <li>• Faktura elektronikoak</li> <li>• Merkataritza elektronikoa (e-Commerce),</li> <li>• Enpresaren Intranet edo/eta Extranet sareen diseinua eta ezarpena</li> <li>• RFID teknologien erabilera</li> <li>• Wikiak lan korporatiborako tresna gisa erabiltzea.</li> </ul> <p>Bestelakoak...</p>   |            |                  |
| <p>EAEn etengabeko ikaskuntzarako on-line zerbitzu integrala sortzea</p> | <p>Etengabeko ikaskuntzarako euskal sistema sendotzen laguntzea, IKTetan eta, bereziki, e-learning teknologian oinarrituriko sistema bat sortuz, esparru honetan nazioarteko erreferentzia izateko xedez.</p> <p>Horrela sortutako on-line formazioko zerbitzu integralak honako baldintza hauek izan beharko ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Biztanleria aktiboaren eta etorkizuneko aktiboen etengabeko formazioaren premiei erantzutea</li> <li>• Formazioa eskuratzeko aukerak hedatuz trebetasun profesionalak eskuratzeko aukera sustatzea.</li> <li>• On-line formazioaren balioa aitortzea, ospe aitortuko egiaztagiri-sistema baten bidez.</li> <li>• Etengabeko ikaskuntzaren kultura sustatzea, espazioari eta denborari dagokienez behar adinako malgutasuna izango duen on-line</li> </ul> | <p>0,3</p> | <p>Industria</p> |

|  |  |     |           |
|--|--|-----|-----------|
|  | sistema baten bidez.   |     |           |
| EAEko enpresetan ikertzaile zientifikoak eta teknologoak txertatzea, enpresen berrikuntza-sistema eta lehiakortasuna hobetzeko                       | EAEko industria- eta zerbitzu-arloetako enpresek gaur egun duten krisia gainditzen laguntzea, enpresa horietako langile-taldeetan goi-mailako kualifikazioa duten eta I+G+B arloko jardueretan formazio espezifikoa duten langileak txertatzeko laguntzak emanez. Ekimen honi esker, enpresa guztiek izango dute ikertzaile talentudun eta sortzaileak hartzeko aukera; ikertzaile horiei esker, enpresetan I+G+B saila sendotu edo sortu ahal izango da.  | 2,5 | Hezkuntza |
| Berrikuntza sustatzea, ezagutza berriak atxikiz. 100 gazte ikertzaile (<26 urte) EAEko ekoizpen-sistemarentzat interesekoak diren arloetan trebatzea | Unibertsitate-titulua duten gazteei goi-mailako formazio-jarduerak eskaini nahi zaizkie, aukera izan dezaten EAEko enpresetan lanean hasteko; gazte horiek enpresetan txertatuta, enpresen oinarri zientifiko eta teknologikoa sendotuko da, balio erantsi handiko jarduerak eta jarduera berrizaleak garatzeko aukera izango dute eta, bide horretatik, EAEko sektore produktiboen lehiakortasunak hobera egingo du.  | 3   | Hezkuntza |
| Ikerketa-taldeentzako laguntza. Ikerbasqueren bidez 50 ikertzailei doktorego ondoko formazioa ematea.  | Krisiari aurre egitera bideratutako programa, doktore titulua duten gazte ikertzaileak berreskuratzeko/hartzeko aukerak sortzeko eta I+G+Bko euskal sisteman txertatzeko bereziki diseinatua, kontuan hartuta egoera honetan zein beharrezkoa den talentua eta sormena biltzea eta ekoizpen-sektoreetan goi-mailako ezagutzetan oinarritutako lehiakortasunaren zerbitzura jartzea. Bi urterako finantzaketa, Ikerbasque fundazioaren bidez I+G+Bko euskal sistemako ikerketa-taldeetarako doktorego ondoko 50 ikertzaile kontratatzeke. | 3   | Hezkuntza |
| Unibertsitatearen eta enpresen arteko ikerketa-proiektu  | EAEko I+G+B sistema sendotzea,   | 4   | Hezkuntza |

|   |   |             |           |
|---|---|-------------|-----------|
| bateratuen finantzaketa                                 | <p>ezagutzaren gizarterako trantsizioa sustatuz, gaur egungo krisia gainditzeko funtsezko oinarri den aldetik; oso kontuan hartu beharra dago ezagutzaren gizartea oinarri zientifiko eta teknologiko aurreratuko jardueren bidez eta goi mailako giza baliabideetan intentsiboak eta iraunkorrak diren jardueren bidez garatzen dela. Horretarako, beraz, funtsezkoa izango da EAEko unibertsitateetako ikerketa-taldeek eta ekoizpen-sistemaren parte diren enpresek ikerketa- eta garapen-proiektu bateratuak gauzatzeko laguntza jasotzea. Krisiari aurre egitera bideratutako programa da, EAEko enpresen lehiakortasuna eta enplegu-maila areagotzeko xedea duena, EAEko unibertsitateetako ikertzaileek ikerketa-arloko lankidetzaren bidez lortutako ezagutza zientifiko eta teknologikoa haietara hedatuz.</p> |             |           |
| Hezkuntzako edukien software askearen sorrera sustatzea | <p>Hezkuntzako edukiak dituzten software askeko programak sortzeko laguntzak esleitzeko programa bat da. Laguntza horien bidez, software askearen aldeko apustua egin duten enpresa txikiei sostengua eman nahi zaie.</p>   | 1           | Hezkuntza |
| <b>PROGRAMA, GUZTIRA</b>                                |   | <b>34,8</b> |           |

## ZERBITZU PUBLIKOEN HOBEKUNTZA.

Gaur egungo aurrekontu-egoera kontuan hartuta, berez da ahalegin handia zerbitzuei orain arte funtzionatzen ari ziren mailan euste hutsa. Baina ondoren proposatzen diren ekintzen bidez, zerbitzu publikoei eusteko asmoa ez ezik, horiek hobetzeko asmoa dugu, batik bat osasun-arloari dagokionez, honako bi proiektu pilotu hauek abian jarrita: gaixo kronikoen telemedikuntza eta ginekologiako zerbitzuen segurtasuna hobetzea.

Bestalde, 260 ertzain gehiago hautatzeko deialdia egingo da, hainbat arrazoi direla medio hutsik gelditu diren tokiak betetzeko. Euskadin garrantzi bereziko neurria da, terrorismoaren kontrako borroka gainera, gure lurraldean funtsezkoa baita segurtasun-estandar arrazoizko batzuk bermatzea.

| NEURRIA   | HELBURUA  | MILIOI | SAILA   |
|---|---|--------|---------|
| Diabetikoen telezaintza                                   | Gaixo kronikoak etxean artatzeko telemonitorizazioa garatzea. 3 esperientzia pilotu egingo dira, diabetesa, arnasketako gaixotasun kronikoak eta gutxiegitasun kardiakoa dituzten gaixoekin.<br>Etxeko telemonitorizazioa telemedikuntzaren arlo espezifiko bat da, eta telekomunikazio-teknologiaren bidez gaixoaren bizi-konstanteei urrunetik jarraipena egitean datza.  | 1,7    | Osasuna |
| Ginekologiako gaixoen eta ama berrien segurtasun-programa | Ginekologia eta Obstetrizia arloak hobetzera bideratutako ekimena da, Osasun eta Kontsumo Sailaren “ <i>Osasun Sistema Seguruagoa</i> ” estrategia berriaren baitan abian jarriko dena. Estrategia berri horren baitan, gaixoaren segurtasun-sare bat antolatuko da, pixkanaka, Euskadin, zerbitzuen kalitatearen eta segurtasunaren kultura sendotzeko. Amatasunarekin eta ginekologiarekin zerikusia duten zaintza dira arrisku gehien izaten dutenetakoak. Gaixo batzuek kalteak izaten dituzte laguntza jasotzeko unean. Ekimen honen bidez, beraz, halakorik gertatzeko arriskua murriztu nahi da. | 1,5    | Osasuna |



|                                   |   |     |              |
|-----------------------------------|---|-----|--------------|
| Ertzaintzaren plantilla handitzea | 260 lanpostu berri aterako dira, promozio berri baten bidez. Hainbat arrazoi direla medio hutsik gelditutako lanpostu guztiak betetzea eta bere garaian adostutako plantilla osatzea (8.000 agente) da helburua. Promozio berria egitea beharrezkoa da herritarren segurtasuna hobeto bermatzeko eta terrorismoaren kontrako borrokarako baliabide gehiago izateko. Era berean, promozio berriari esker, jaitsi egingo da plantillaren batez besteko adina. | 0   | Herrizaingoa |
| <b>PROGRAMA, GUZTIRA</b>          |   | 3,2 |              |

### LAGUNTZAK MERKATARITZARI ETA BESTELAKOAK

Programa honen bitartez hainbat helburu lortu nahi dira, hala nola gure saltokietan gehiago kontsumitu dadin sustatzea, saltoki txikiei laguntza ematea saltoki handiekin berdintasun handiagoz lehia daitezen, modu berezian eragindako sektoreei laguntzea, besteak beste altzarien sektoreari, eta Euskadin egiten den turismoa sustatzea, asteburuetakoa bereziki.

| NEURRIA  | HELBURUA   | MILIOI | SAILA     |
|--|--|--------|-----------|
| Saltoki txikietan kontratuak egiteko laguntzak | EAEko Merkataritzaren, Ostalaritzaren eta Jatetxeen alorreko enpresa ertain eta txikietan enplegua sortu dadin bultzatzea; horretarako, Gabonetan egiten diren kontratazio berrien soldata-kostuetarako diru-laguntza emango da. Era horretara, familiarteko saltokien eta ostalaritzako eta jatetxeen alorreko negozioen lehiakortasuna hobetuko da. Merkataritzari dagokionez, neurriaren helburua izango da sortutako enplegu horren ehuneko bati eustea, Gabonen ondorengo beherapenen kanpainari ekin ahal izateko. Gazteen enplegua sustatuko da batez ere.<br>9 langile baino gutxiago dituzten EAEko | 2      | Industria |

|  |  |     |                       |
|--|--|-----|-----------------------|
|  | <p>enpresa txiki eta ertainak, merkataritzaren, ostalaritzaren eta jatetxeen sektorean dihardutenak.</p> <p>1200 €ko diru-laguntzak egun osoko kontratazio bakoitzeko, Gabonetan plantilla sendotzeko. Zuzeneko laguntza bakarra izango litzateke, gehienera 2000 enpresa txiki eta ertainentzat.</p>  |     |                       |
| Altzariak berritzeko renove plana  | <p>Gaur egungo ekonomia-krisiaren ondorioak gehien jasan dituen sektoreetako batean kontsumoa sustatzea: altzarien sektorean hain zuzen ere. Etxeko altzariak urtea amaitu aurretik berritzeak ekartzen dituen abantailei buruzko berri positiboak sortzea</p> <p>Laguntza honako hau da: etxerako erositako altzariantzat zenbatekoaren % 25, 300 €tik gorako erosketetan; gehieneko laguntza 1.000 €koa izango da. Laguntza gauzatzeko hitzarmen bat izenpetuko da azpisektore horretako saltokiekin (gremioen elkarten bitarteko harremana), baldin eta tarteko saltoki horiek ETEak izateko baldintza betetzen badute.</p> | 2   | Industria             |
| Turismoa sustatzea Euskadin urria-abenduan (asteburuko bonoak)   | <p>Urteko azken hiruhilekoan turisten sarrera eta gaua ematen dutenen kopurua handitzea, krisiak sektore horri eragindako ondorioak arintzeko helburuarekin.</p> <p>EAEko hoteletan asteburuko bonoak bultzatuko dira urria, azaroa eta abenduan; horien bitartez, sustapen-beherapen bat egingo da, hau da, ostatuaren prezioaren % 20-ko beherapena.</p>   | 0,8 | Industria             |
| Kultura-produktuak kontsumitu daitezten bultzatzea eta alor horretako gaiak saltzen dituzten saltokiei laguntzea |  | 1,5 | Kultura               |
| Hirietako Merkataritza Inguruneak dinamizatzeko ekintzak (Merkatari Elkartek)                                    | <p>Hiriguneak dinamizatzeko ekintzak sendotzea, Elkarrekin eta/edo EAEko Udalekin lankidetzan. Horretarako, kontsumitzaileari estuki "lotutako"</p>  | 1   | Kultura-<br>Industria |

|  |  |      |             |
|--|--|------|-------------|
|  | <p>ekimenak egingo dira: street marketina, harreman-marketina, marketin esperientziala.</p> <p>EAEko eskualdeetako merkatari elkarteak.</p> <p>Kultura Sailarekin lankidetzan programa bat jarriko da abian dinamizazio-ekimenak aurrera eramateko eta sustatzeko. Ekimen horien barruan poltsa ekologikoen banaketa sartuko da.</p>   |      |             |
| Esnea zuzenean saltzeko guneak   | <p>Kontsumitzaileari esne jetzi berria eskaintzea. Esne horri pasteurizazio-prozesua egingo zaio, hori baita Osasun sailak esnea kontsumitzeko eskatzen duen gutxieneko baldintza. Esnea goizero aldatuko da eta saltzeko makinaren bitartez eskainiko da. Makina horietan esnea lau gradutan mantentzen da, ontzian sartuta, izan ere, produktu bizia eta tratamendurik gabea denez, hoztu egin behar da, hobeto eta denbora gehiagoz iraun dezan.</p>  | 0,5  | Nekazaritza |
| Banaketa-zentroak nekazaritzako kooperatiben bitartez ezartzeko ikerketa bat gauzatzea, eta korporazio-irudi berri bat definitzea. | <p>Nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoen hedapenak gaur egun duen arazo nagusietako bat ekoizpen ekologikoa banatzeko mekanismoa lortzea da, era horretako ekoizpenaren eskariari erantzun ahal izateko. Asmoa da azterketa bat egitea nekazaritzaren alorreko kooperatibak eratzeko behar diren mekanismoak finkatu ahal izateko eta Euskal Autonomia Erkidego osoan korporazio-irudi bat osatzeko; irudi hori sektorearen trakzio-osagaia izango da, eta banaketa-zentroen bitartez zabalduko da.</p> | 0,15 | Nekazaritza |
| <b>PROGRAMA GUZTIRA</b>  |  | 7,95 |             |

## UDALAK

| NEURRIA                       | HELBURUA   | MILIOI | SAILA |
|-------------------------------|--|--------|-------|
| UDALENTZAKO LAGUNTZA BEREZIAK | Egitasmo honen helburua udalek jasaten duten egoera arintzeko laguntza bereziak ematea da. | 50     |       |

## LABURPEN OROKORRA

|   |               |
|---|---------------|
| ENPLEGUA ETA PRESTAKUNTZA PROGRAMA GUZTIRA                    | 67,05         |
| AZPIEGITUREN PROGRAMA GUZTIRA                                 | 75,6          |
| HERRI LANEN PROGRAMA GUZTIRA                                  | 48,7          |
| ENPRESEI LAGUNTZEKO PROGRAMA GUZTIRA                          | 63,83         |
| ERAGINKORTASUN ENERGETIKORAKO PROGRAMA GUZTIRA                | 15,98         |
| BERRIKUNTZA ETA IKERKETA PROGRAMA GUZTIRA                     | 34,8          |
| ZERBITZU PUBLIKOAK HOBETZEKO PROGRAMA GUZTIRA                 | 3,2           |
| MERKATARITZARI LAGUNTZEKO PROGRAMA ETA<br>BESTELAKOAK GUZTIRA | 7,95          |
| UDALENTZAKO LAGUNTZAK   | 50            |
| <b>+EUSKADI 09 GUZTIRA</b>                                    | <b>367,11</b> |